

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN SAILA

2055

AGINDUA, 2014ko apirilaren 14koa, Osasuneko sailburuarena. Honen bidez, Azterlanen Jarraipen Batzordea eta Kalitate Batzordea sortzen dira, biak ere Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren menpe.

Urtarrilaren 11ko 3/2005 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa sortu zen.

Batzorde horri esleitutako eginkizunen artean daude, batetik, behaketa bidez eta etorkizunari begira egindako azterlan eta saiakuntza kliniko baimendunen jarraipena egitea, eta, bestetik, ikerketaren garapenean bete beharreko kalitate-politikez arduratzea.

Bi eginkizun horiek betetzeko, Batzordeak 2009 urtetik izatez badu azterlanen jarraipen batzorde bat eta kalitate batzorde bat.

Agindu honen helburua da, beraz, bi batzorde horien egitura eta funtzionamendu-erregimena arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren laguntza-organo gisa..

Hori guztia kontuan hartuta, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 eta 61. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.– Xedea.

Urtarrilaren 11ko 3/2005 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari esleitzen dizkion eginkizunak garatzeko laguntza-organo gisa, honako hauek sortzen dira:

- a) Azterlanen Jarraipen Batzordea.
- b) Kalitate Batzordea.

2. artikulua.– Azterlanen Jarraipen Batzordearen egitekoak.

Hona hemen Azterlanen Jarraipen Batzordearen egitekoak:

a) Behaketa bidez eta etorkizunari begira egindako azterlan eta saiakuntza kliniko baimendunen jarraipena egiteko metodologia-proposamenak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoak balioetsi, eta, hala badagokio, onartu ditzan.

b) Saiakuntzen eta azterlanen jarraipena Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoak onartutako prozedurekin bat etorritz egitea.

c) Ikertzaileei eskatzea aurrez onartutako metodologiara egokitu daitezen, horretatik aldentzen badira.

d) Aldian behin txostenak egitea, saiakuntzen eta azterlanen jarraipen-egoerari buruz.

e) Azterlanen eta saiakuntzen jarraipenari dagokionez, Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoak ezartzen dizkion egitekoak betetzea.

3. artikulua.– Azterlanen Jarraipen Batzordearen osaera.

1.– Honako hauek izango dira Azterlanen Jarraipen Batzordeko kideak:

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren ospitaleetan dauden Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoetako Idazkaritzetako ordezkari bana.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren hiru ordezkari; horietako bat azterlanen jarraipena egiteko arduraduna izango da.

2.– Ordezkatzen dituzten organoen proposamenez aukeratuko dira kideak, Osasuneko sailburordearen ebazpen bidez, zeinek horien artean izendatuko baititu batzordeburua eta idazkaria. Eginahalak egingo dira Batzordea parekidea izan dadin.

3.– Jarraipen Batzordeko kideek bere kargua galduko dute, uko egiten badiote, proposatu zituen organoak izendapena baliogabetzen badu edo organo horretako kide izateari uzten badiote.

4. artikulua.– Kalitate Batzordearen egitekoak.

Hona hemen batzorde horren egitekoak:

a) Neurri zuzentzaile eta prebentiboak ezartzeko metodologia-proposamenak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren kalitatea kudeatzeko sistema etengabe hobetzeko.

b) Ikerketan aritzen diren agenteei eskatzea aurrez onartutako metodologiara egokitu daitezen, horretatik aldentzen badira.

c) Ikerketa-proiektu bakoitzean ezarritako kalitate-helburuen jarraipena egitea.

d) Kalitatea kudeatzeko sistemaren egoerari buruzko urteko txostena egitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari helaraztea.

e) Ikerketa-proiektuen kalitatea kudeatzeari dagokionez, Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoak ezartzen dizkion egitekoak betetzea.

5. artikulua.– Kalitate Batzordearen osaera.

1.– Honako hauek izango dira Kalitate Batzordeko kideak:

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren ospitaleetan dauden Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoetako Idazkaritzetako ordezkari bana.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren hiru ordezkari; horietako bat kalitatearen arduraduna izango da.

2.– Ordezkatzen dituzten organoen proposamenez aukeratuko dira kideak, Osasuneko sailburordearen ebazpen bidez, zeinek horien artean izendatuko baititu batzordeburua eta idazkaria. Eginahalak egingo dira Batzordea parekidea izan dadin.

3.– Jarraipen Batzordeko kideek bere kargua galduko dute, uko egiten badiote, proposatu zituen organoak izendapena baliogabetzen badu edo organo horretako kide izateari uzten badiote.

7. artikulua.– Bi batzordeetako funtzionamendu-arauak.

1.– Azterlanen Jarraipen Batzordea nahiz Kalitate Batzordea lau hilean behin bilduko dira, gutxienez, eta euren jarduna egokitu egingo dute azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko

II. kapituluan ezarritakora (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

2.– Batzorde-kideek ez dute inolako soldatarik jasoko izendapen horregatik. Nolanahi ere, dagozkien dietak eta kalte-ordainak jasoko dituzte.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 14a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.